




Aplikazioak

A.2.- AL eta estrategia  
teknologikoa

## 1. Sarrera


Pilula honek, erakunde batek estrategia teknologikoa definitzerakoan Adimen Lehiakorrek input gisa duen garrantzia aztertzen du, gehienetan Roadmap batean islatzen delarik. Roadmapping-aren faseak aurkezten dira eta horietako bakoitza definitzeko ALak nola laguntzen duen ere azaltzen da.



### Estrategia Teknologikoa

## 2. AL eta estrategia teknologikoa

Roadmapping Teknologikoa, enpresaren garapen teknologikoaren planifikazio estrategikoa osatzen laguntzen duen tresna da. Erakunde baten uneko eta etorkizuneko produktu/ zerbitzuak denbora-lerro batean kokatu eta izan dezaketen bilakaera teknologikoaren aukera ezberdinak adierazten ditu, bai garapenaren bitartez, bai eta eskuratzeen bitartez ere, guztia, merkatuaren eskakizunekin eta sustatzen dituen erronka estrategikoekin lerrokatuta. Roadmap-a, merkatutik abiatzen da eta proiektuetara arte iristen da.



1 Irudia: Roadmap

Adimen Lehiakorrak, kalitateko input-ak eskaintzen ditu Roadmap Teknologikoaren maila guztietan (merkatua, produktua, teknologia eta proiektuak). Honela:



### **Merkatua- sektoreak**

Beti hasten da merkatutik. Etorkizunean negozioa zein merkatutara bideratuko den identifikatzen da, baita horietako merkatu bakoitzeko produktuen driver eta ezaugarriak eta dagozkien kontzeptu teknologikoak ere. Merkatuaren driver-a, merkatu horrek berak produktuari baloratu edo eskatzen dizkion ezaugarrietan datza.

Adimen Lehiakorrak, helburu izan daitezkeen merkatuak ezagutzen laguntzen du, bai eta merkatu horien portaerak ezagutzen eta portaera horiei dagozkien ezaugarri teknologikoak detektatzen ere.




### **Produktua**

Merkatuko driver-ak lortzen ditugunean, erantzuna nola eman zehaztu beharra dago. Horretarako, aztertu eta taldekatu egiten dira produktu berrien, uneko produktuen hobekuntzen edo merkatuetan sartzeko egindako garapen teknologikoen ezaugarriak konfiguratuta.

Merkatuan dauden produktuak eta berauen ezaugarri zein funtzioak ezagutzea beharrezkoa da norberaren produktuak nolako ezaugarriak izango dituen erabakitzeko. Horregatik, ALak informazio esanguratsua eman behar du.

Bakoitzak izango duen abiatze-egoera aztertu: arriskuak, oztopoak, beharrezko aliantzak, laguntzaileak, ezagutza gabeziak...



## Teknologia

Produktu, merkatu eta maila altuago batean identifikatutako eduki teknologikoen beharrak asetzeko, garatu behar diren teknologiak identifikatu beharra dago. Teknologia horizontalak zein produktu/zerbitzu zehatz bati aplikagarri zaizkion teknologiak izan daitezke.

Teknologia identifikatzeko beharrezkoa da berauen egoera ezagutzea eta fase honetan AL oso garrantzitsua da.



## Proyektuak

Maila honetan, beharrezko eduki teknikoak lortzeko beharrezkoak diren proiektuak planifikatzen dira. Hau da, proiektu ezberdinen baliabideak aurreikusten dira, lehentasunak ezartzen dira eta helburuak betetzeko epeak eta iraupena zehazten dira.

Laburbilduz, Roadmap Teknologiko bat egiteko ezinbestekoa da aurretik Merkatuaren, eskatutako Produktuen eta produktu hauen Teknologien (orain artekoak eta etorkizunekoak) beharrianak eta bilakaera ezagutzea. Halaber, ondo definitu behar dira exekutatu diren proiektuak. Informazio eguneratua eta esanguratsua izateko, Adimen Lehiakorraren sistema eraginkor baten laguntza izatea ezinbestekoa da..